



PERITO MORENO



LURREAN GLAZIAR EZAGUNIK BADA,
HORI PERITO MORENO DA. Izen bereko
esploratzaile argentinarraren izena
hartzen duen ibai zuria atzera
egiten ari ez den bakarretakoa da.

Patagoniako izotz kontinentaletik
askatzen da izotza Atlantikorantz,
eta aurrealdea Lago Argentino
aintzirara iristen da.



Egunean, batez beste, 2 metroko ibilbidea egiten du: neguan, gutxixeago; udaran, gehixeago. Etenik gabe, Lago Argentinon zehar egiten du aurrera, eta banatu egiten ditu aintziraren zati nagusia eta haren hegoaldeko adarra. 50 eta 70 metroko altuera hartzen duen horma zuriak irteera-jariorik gabe uzten du hegoaldeko adarra. Adarrak ura hartzen eta pilatzen segitzen du. Aintziraren bi aldeetan ur-mailen arteko aldea 17 metrora irits daiteke.

Presioak haustura ikusgarriak eragiten ditu. Izotza pitzatu, eta ubideak azaltzen dira lehenik; gero, tunel bat. Eta tunelaren sabaia erori egiten da azkenik. Horrek egin du Perito mundu guztian ezagun. Milaka pertsona aho zabalik uzten duen naturaren azken erakustaldia 2008ko negu australean gertatu zen. Ezin iragarri noiz izango den hurrengo haustura, Perito Morenoren hausturak ez baitu ziklo erregularririk. ●

